

KANALAK

Baloretzko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu.

KOMUNIKAZIO-KANALAK

Sarean webgune bat edukiko dugu, bezeroentzako harretarako baliagarri izango dena, hala nola, proiektuaren inguruko berrikuntzen berri eman eta laguntza eskaintzeko. Honez gain, enpresak telefono zenbaki bat eta posta elektronikoa izango du bezeroak gurekin harremanetan jarri ahal izateko.

BANAKETA-KANALAK

Banaketa-kanal zuzena izango dugu, produktua kontsumitzaileari zuzenean eskaintzen baitiogu. Banaketa Google Play Store, Apple Store eta gure webgunetik gauzatuko da. Izan ere, erabiltzaileek bertatik eskuratu ahal izango dute aplikazioa.

SALMENTA-KANALAK

Zerbitzuaren salmenta webgunetik egingo da enpresa pribatuen kasuan. Sektore publikoaren kasuan aldiz, akordio batera iristeko, aparteko bilerak egingo ditugu Eusko Jaurlaritzarekin, Hezkuntza sailarekin zehazki. Publizitatea saltzeari dagokionez, enpresarekin zuzenean akordatuko dugu saldu nahi duten iragarkiaren xehetasunak, esaterako, iragarkiaren iraupena eta tarifa.